

ARRASATEKO GIMNASIA BILBAOKA



Gimnasia erritmikoa. Ipurua talde eibartarrak eskolarteko txapelketan parte hartu du Arrasaten; klubeko bi talde eta hamar gimnasta izan dira bertan bere onena ematen. :: ARTXIBOA



Martxa. Euskadiko txapelketa irabazi du Mairena Lopezek infantil mailan; bigarren izan dira Luis Aranzabal eta Idoia Atxaga kadeteak. :: ARTXIBOA



«Bilatutako zerbaiz izan da; ez dut zortean sinisten»

Hiruko marratik jaurtiketak egiten espezialista dela erakutsi du Askatuak taldeko Xabier Barbado Orange lehiaketan

AZALEAN

IOSU GORROTXATEGI

Eskumutur bikaina dauka Xabier Barbado, Askatuak taldeko jokalariak. Duela aste pare bat irabazi zuen Orange lehiaketan. Gainera, sari bikaina zegoen irabazlearentzat: Gasteizko Errege Kopa ikusteko abonamendua!

- Ez zen nolanahiko saria, ez horixe! Zenbat gazte bildu zineten Gipuzkoan?
- Berrogeitik gora bildu ginen igandenean hartzan. Jokalari bakoitzak bost orga aurkitu zituen perimetro inguruan jarriak; bost baloi orga bakoitzean. Minutu batean hogei tabost jaurtiketa egin genituen.

- Iaz Bartzelonara joan nintzen, Sant Julia de Vilatorako izeneko herrira, antzeko lehiaketan batean parte hartzen, baina han ez zitzaiakidan gauzak ongi atera eta nire klubean jokatzeten duen Jon Eizagirre izan zen txapeldun. Kalautua aldean arantza bat geratu zitzaidar sartuta eta horregatik eman nuen izena Orange lehiaketan. Gainera, sari bikaina zegoen irabazlearentzat: Gasteizko Errege Kopa ikusteko abonamendua!
- Betidanik eduki al duzu hiruko marratik baloia saskratzeko abilidade hori?
- Betidanik gustatu izan zait jaurtiketak urrutitik egin eta saskiratze zailak lortzea.
- Nola pentsatu zenuen Orange-ek antolatutako lehiaketa partea hartztea?

- NBAko lehiaketan azken baliok bi puntuko balioia izaten du, baina hemen jaurtiketa guztiek balio zuten puntu bat.
- Zenbat puntu lortu zenituen sailkapen fase horretan?
- Goizekoan zortzi saskiratze lortu nituen eta arratsaldeko finalean, berriz, bederatziz, beste batek bezainbeste. Berdiniketa hausteko orduan, nik hiru lortu nituen eta besteak bi.
- Zer behar da hiruko marratik hainbeste aldiz asmatzeko?
- Kalitate pixka bat behar da, baita asko praktikatzea ere. Eskumutur ona edukitzeara funtsezkoa da, baina kalitatearekin eta praktikarekin, asko sartzen dira barrura.
- Nerbioak kontrolatzetan ja-

kin beharko da, ezta?

- Jaurtiketa lasai egin behar da, nerbioak ahal den heinean aldenduz. Bartzelonako lehiaketa hartzan urduriagi egon nintzen eta beste honetara lasaiago joango nintzela agindu nion neure buruari. Ez zen gauza erraza izan Gasteizen, Bartzelona eta Real Madrilaren arteko partidaoko atsedentaldean, 15.000 lagunen aurrean aritzear!
- Zenbat jokalari aritu zinenten Gasteizko finalean?
- Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako onenak aritu ginen, hiru baino ez, beraz. Nik bederatziz sartu nituen, besteek baino askoz gehiago. Hiru lortu zituen arabarrak eta bi bizkaitarrak.
- Erraz irabazi zenuen orduan! Ezustekoia izan al da garaien hau?

Zure argazkiak argitaratu eta konpartitu itzazu hurrengo webgunean <http://canales.diariovasco.com/dvkirolak/> eta dvkirolak@aragi.com



Txakurkrossa. Txakurkrossa Oarsoaldean taldeko korrikalariak podiumera igo ziren Tolosako lasterketan, senior, junior eta beteranoetan. :: ARTXIBOA



Judoa. Bikain aritu dira Zarauzko Judo Klub Lizardi taldeko alebinak Tolosako jardunaldian eta Gipuzkoako txapelketarako txartela lortu dute. :: ARTXIBOA

-Pixka bat bai, baina nik bilatutako zerbait izan da. Ez dut zortean sinesten. Bilatu du dan zerbait izan da eta azkenean lortu egin dut.

-Gertutik ikusi al zenituen Bartzelona eta Real Madrideko jokalariak?

-Ez. Bigarren laurdenaren ostean aldagelara joan ziren eta ez genuen beraiekin egoteko aukerarik izan.

-Zein izan zen finala irabazteagatik eman zizuten saria?

-Mugikor bat eman ziguten, Sony Xperia modeloa. Hori gutxi balitz, Iphone 5 bat zozketatu zuten eta niri tokatu zitzaidan. Anaiari bietaiko bat emango diot.

-Partida berean zenbat hiruko sartzen iritsi zara?

-Sei sartu nituen behin Andoingo Ganbara taldean jokatzen nuenean. Easoren kontrako partida batean izan zen eta oker ez banago, partida hura irabazi egin genuen. Zorte pixka bat ere eduki nuela aitorut behar dut.

-Entrenamendu bakoitzean zenbat hiruko jaurtitzen dituzu?

-Asko. Pixka bat lehenago joaten naiz jaurtiketa batzuk egin eta berotzera eta laurogei eta ehun jaurtiketa inguru egin ohi ditut, gutxi gorabehera.

-Zein da zure jokalaririk guskuena?

-Txikitak ez nuen batean ala besteak arreta jartzen eta jokalari asko gustatzen zi-tzaizkidan. Gaur egun, gehiago jarraitzen ditut profesionalak eta bi jokalari gustatzen zaizkit bereziki. Bata, Dallas Mavericks taldeko Dirk Nowitzki eta bestea, Bartzelonako CJ Wallace. No-

witzkik hiruko lehiaketa bat irabazi zuen duela urte batzuk NBA eta Wallace ere gustatzen zait.

-Askatuak taldean jokatzen duzu, ezta?

-Bai, baina ez dut Zilarrezko LEB ligar jokatzen. Bigarren mailan ari naiz.

-Nola daramazue denboraldia?

-Ondo, baina hiruzpalau partida galdu genituen jarraian eta une zaila bizi zan genuen. Orain hobeto gaude. Partidak irabazten hasi gara eta joan den asteburuan, urrutira joan gabe, luzapenean irabazi diogu Alde Zaharra B taldeari. Bosgarrenak gara sailkapenean, laugarren eta hirugarrenarekin berdinaduta.

-Zein da zuen helburua denborald honetan?

-Mailaz igotzea da asmoa.

-Txikitatik egin al duzu saskibaloia?

-EZ. Lehen futbola egiten nuen, baina 12-13 urterekin saskibaloian jokatzen hasi ginuen lagunak eta saskibaloitako bat egitea erabaki genuen hamalau urterekin. Ganbaran bi urte eman niztuen, kadeet mailan, eta gero etorri nintzen Askatuak taldeera. Hemen bi urte eman ditut junior mailan eta orain senior mailako lehen urtean ari naiz.

-Zein da zure ametsa saskibaloik munduan?

-Guztia lortu nahi dut. Lehenik eta behin, Zilarrezko LEB ligara igo nahi dut politikopolitika eta hortik aurrrera, urte batzuren buruan NBAra joatea da ametsa. Zaila da baina esfortzuarekin, iritsi nai-tekeela uste dut.

-Zer moduz daramatzazu ikasketak?

-Aurten Batxilergoko bigarren mailan nago eta ez dauak ikasketak eta kirola tartekatzeko arazorik. Normalean berandu entrenatzeko dugu eta arratsaldean egin ohi ditut etxeko lanak. Guztia egiteko denbora dago.

-Jarraitzen al duzu ACB ligan gertatzen ari dena?

-Lagun Aro Gipuzkoa Basket taldeko baskidea naiz eta gertutik jarraitzen dut taldearen nondik norakoa. Ziur nago salbatuko dirella. Laupabost partida irabazita, mailari eutsiko diotela uste dut.



«Bi jokalari gustatzen zaizkit bereziki. Bata, Dallas Mavericks taldeko Dirk Nowitzki eta bestea, Bartzelonako CJ Wallace»

«Entrenamendu egunetan polikiroldegira pixka bat lehenago joan eta laurogei eta ehun jaurtiketa inguru egin ohi ditut, gutxi gorabehera»